

EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETAKO ARAUTEGI OFIZIALA

EGUNERAKETA DATA: 2023ko ABENDUAN

1. ATALA JATORRIA

- Mus jokoaren lehenengo aipamena [Manuel de Larramendi](#) filologo euskaldunak egin zuen 1754ean bere hiru hizkuntzetako hiztegia (Euskara, Gaztelania eta Latina)
- Historia zale gehienek [diotenez](#), Euskal Herrian jaio zen 40 kartako karta-sorta erabiltzen duen mus joko hau. *Mus* izena *musu*-tik etor litekeenaren zantzu handiak daude, musua baita jokorik onena, 31a adierazteko keinua. *Hordago*-aren esapideak ere, *hor dago* leku adierazletik etor litekela huste da, apustua maila gorenera iristen denean esan ohi den adierazpena.

2. ATALA EUSKAL HERRIKO MUS FEDERAZIOAREN ABIAPUNTUA

- 2002. urtean. Iparra Hegoa elkarteak Euskal Herriko Mus Txapelketa antolatzen hasi zen. Garai hartan, Orreaga Fundazioak Nafarroako mus txapelketa antolatzen zuen. Bai Euskal Herriari ekimena, Iparra Hegoa eta Orreaga fundazioak hausnartu eta Euskal Herri osoko muslariak biltzeko une edo gune bat sortzea adostu zuten. Zazpi herrialdetako muslariak herri gisa aritzeko eta lotzeko egitasmo txiki bat zabaltzeko erabakia hartu zuten.
- Euskal Herriko Mus Txapelketa urtez urte indartuz joan da eta beste hainbat esparrutan bezala, Euskal Herria oinarri hartuta egitura propio bat sortzearen beharra nabarmena zen. Egitura hori sortzeko helburuarekin, txapelketaren antolakuntzan gero eta pertsona gehiago antolatzen joan dira azken urteetan eta guztion artean Euskal Herriko Mus Federazioa sortu dugu.

3. ATALA MUS FEDERAZIOAREN HELBURUAK

- Euskal Herrian mus jokoa, mahai jokoetan zabalduen izaki, Euskal Herria munduaren aurrean ordezkatu ahal izateko sortu da Euskal Herriko Mus Federazioa.
- Gure helburua ez da gaur egun egiten diren mus txapelketak ordezkatzeko, indartzeko baizik. Bide horretan Euskal Herri gisa, gure izatea eta nortasuna aldarrikatzea.
- Emeki-emeki Euskal Herrian bizi dugun zatiketa gainditu eta bide berriak josteko sortu dugu Euskal Herriko Mus Federazioa. Horregatik antolatzen dugu nazio mailako txapelketa herriz herri.
- Pauso sendoak ematen ari gara. Federazioa Euskal Herriko zazpi lurraldetako ordezkari osatuta dago eta eskualdez eskualde sustraitzen ari da txapelketa nazionalaren bidez.

4. ATALA MUS JOKOA ETA GURE BALOREAK

- ERRESPETUA ezinbestekoa da elkarren artean zerbait eraiki nahi bada. BERDINTASUNA emakume nahiz gizonen artean; jatorri, sexu aukera, sinesmen edota bakoitzak maite duenaren gaineko juzgurek, ez dute lekurik gurean.
- JOKO GARBIA, ez dakienari irakatsiz, galtzen nahiz irabazten ikasiz eta lehiakidearekiko enpatiaz, ANAIKIDETASUN edo AHIZPAKIDETASUNA da gure artean sortu nahi dugun harremanaren zurtoinetako bat.
- BERE BURUAREN JABE izan nahi eta uzten ez dioten herri bateko kide gara. Euskal Herria mapetatik ezabatu, egunerokoan errealitate ezberdinak sorrarazi eta elkarri bizkarra emanda bizi arazi nahi gaituzten honetan, Euskal Herriko Mus Federazioa elkarren artean eta elkarri begira nazio burujabe gisa jarduteko helburuz dihardu, EUSKARATIK ETA EUSKARAZ, baino gure herriaren errealitate ezberdinetara gerturatuz eta egokituz.
- AUZOLANA da gure lanabes, gure eguneroko jarduna lan bolondresean oinarrituriko hartu eman osasuntsuan oinarritzen da. Bakoitzak daukanetik jarriaz eta guztion hartu emanarekin bultz eginaz goaz aurrera. Musean ez bezala, txikitik handira hazten doan auzolana da gurea.

5. ATALA PARTE HARTZEA

1. ARTIKULUA

- Euskal Herriko Mus Txapelketan parte hartzeko izena eman eta dagokion tasa ordaindu beharko da herrietako kanporaketan. Parte hartzaileek, Izena, abizenak, emaila eta telefonoa emango dituzte hasieran eta federazioari baimena emango diote datu horiek erabili ahal izateko txapelketak irauten duen bitartean.
- Datu babesa dagokionez, txapelketa gauzatzen den administrazio bakoitzak eskatutako trataeraren arabera zainduko ditu datuak Euskal Herriko Mus Federazioak. Edozein aldaketa edo argibiderako idezkaritza@ehmus.eus helbidearen bidez egin beharko dira erreklamazioak.
- Herriz herrikako fasean parte hartzea: kanporaketa jokatzen den herriko antolakuntzaren esku geratzen da, herriko kanporaketan parte hartzeko bertan bizitzea baldintza den edo ez zehaztea. Bikoteak edo bikoteko batek bertakoa izan behar duela ere zehaztu dezake bertako antolakuntzak. Gaizki ulertuak ekiditeko, eskakizun hau deialdiaren baitan www.ehmus.eus atarian plazaratzea eskatzen dugu.

2.ARTIKULUA

- Muslari bikote bakoitza bi pertsonaz osatua egongo da. Bikoteko partaide bat ordezkatu ahalko da txapelketa zehar, baina inoiz ez biak. Kasu horretan antolakuntzaren esku egongo da bikotea ordezkatu edo jokoz kanpo uztea.
- Aldaketa hauen berri, aurrez jakinarazi behar zaio antolakuntzari horretarako ezarritako kanalen bidez, hala egin ezean, antolakuntzaren esku egongo da bikotea ordezkatzeari edo jokoz kanpo uztea.

3.ARTIKULUA

- Euskal Herriko Mus Txapelketan parte hartzeko gutxieneko adina 18 urte da.
- 14 eta 18 urteko adin tarteko jokalariek, adin nagusiko pertsona baten babesean eta presentziarekin jokatu ahalko dute. Herrialdeko finaletan nahiz final nagusian parte hartzeko, ezinbestekoa izango da adin txikiko jokalariaren guraso edo tutoreak idatziz izendatutako arduradun bat uneoro berarekin izatea.

6.ATALA SAILKAPENA

4.ARTIKULUA

- Herriko kanporaketako sailkatua(k) eta ordezko bikotea jakinaraziko dira dagokion herrialdeko federazioari. Sailkatuak etorri ezin duelako, ordezko bikoteak parte hartuko balu txapelketan, bikote hau izango litzateke ofizialki aurrera jarraituko lukeena ondorengo fase guztietan. www.ehmus.eus atarian plazaratuko dira sailkatu eta ordezko bikote guztiak eta aldaketari balego, bertan eguneratuko litzateke finala gauzatu baino 24 ordu lehenago arte.
- Euskal Herriko Mus Txapelketara sailkatu den inork ezin du berriro parte hartu inongo herrietako kanporaketan. Ez bikotean ez eta bakarka beste bikote batekin. Horrelako kasuren bat baieztatuko balitz, zuzenean kanporatuko litzateke, bai bigarren aldiz sailkatutako bikotea bai eta lehenengo aldian sailkaturikoa ere.

5.ARTIKULUA

- Herrialdeko finaletako sailkatuak eta ordezko bikoteak jakinaraziko zaizkio Euskal Herriko Federazioari. www.ehmus.eus atarian plazaratuko dira sailkatu eta ordezko bikote guztiak eta aldaketari balego, bertan eguneratuko litzateke finala gauzatu baino 24 ordu lehenago arte.

6.ARTIKULUA

- Antolakuntzak, partaideren baten nortasunari buruzko zalantzarik balu, bere nortasuna frogatzea eskatu diezaioke parte hartzaileari. Hala egin ezean, edota dagokion pertsona ez dela agerian geratuko balitz, bikote hori jokoz kanpo geratuko litzateke, momentu horretarik bertatik, inolako sari edo konpentsazio eskubiderik gabe kanporatua izango litzateke.

7. ARTIKULUA

- Parte hartzean oinarrituriko ordezkariak joango da herrialdeko kanporaketara: Herriko mus kanporaketa onartzeko **GUTXIENEZ LAU BIKOTEK parte hartu behar dute.**
 - **4 bikotetik - 10 bikote arte** : bikote **bakarra** herrialdera.
 - **11 bikotetik - 18 bikote artean**: **bi** bikote herrialdera.
 - **19 bikotetik – 25 bikote artean**: **hiru** bikote herrialdera.
 - **26 bikotetik - 31 bitartera**: **lau** bikote herrialdera.
 - **32 bikotetik – 38 bitartera**: **bost** bikote herrialdera.
 - **39 bikotetik – 45 bitartera**: **sei** bikote herrialdera.
 - **Ordezko bikote baten** kontaktua ere bidali beharko da badaezpada ere.

1. KAPITULUA

JOKOAREN HASIERA

8. ARTIKULUA

Bi bikoteren artean jokatuko da musera, lau erregetara eta 6 hamarrekotara izango diren 3 partida irabaztera, beraz gehienez 5 ustel jokatuko dira.
OHARRA: Herrietako kanporaketa saioetan tokian tokiko ohitura arabera jokoan aritzeko aukera irekia da.

9. ARTIKULUA

- Ikuslerik gabeko partida, Norbaitek horrela eskatuko balu, ikuslerik gabeko partida aurrera eraman ahal izango da, edo epaileekin soilik.
- *Salbuespenak: finalerdiak, finalak...edo antolakuntza erabakitzen badu...*

10. ARTIKULUA

- Partidari hasiera eman eta nork banatuko duen erabakitzeko. Karta bana banatu eta txikiena egokitzen zaionak banatuko ditu kartak. Ba da beste aukera bat; bi bikoteak ados badira, edonork bana lezake eta lehen jokoa moztzen duena *esku* izango litzateke, hots mus jarraia eta keinurik gabe.

11. ARTIKULUA

- Kartak zenbatu, begiratzea, gomendatzen da jokoa hasi aurretik. Jokoa hasi eta gerora kartaren bat ongi ez dagoela onartu edo falta dela sumatuz gero, Karta jokoa aldatzea eskatuko da. Hala ere ordu arte egindako tantoak bere horretan geldituko dira.

2. KAPITULUA

KARTAK BANATZERAKOAN

12.ARTIKULUA

- Kartak banatzea dagozkionak, lehenik nahasi eta ondoren bere ezkerrekoari emango dizkio moztu ditzan. Kartak banan-banan banatuko ditu, bere eskuinean geratzen dena esku izango delarik. Lau karta banatuko zaizkio jokalaria bakoitzari.
- Karta guztiak banatu arte, ezin dira begiratu.

13.ARTIKULUA

- Kartak ez dira inoiz erakutsiko jokoa edo puntua amaitu arte, behin amaituta, ezinbestekoa (derrigorrez) izango da 4 kartak erakustea, akatsen bat edo gezurrik egotekotan epaileek neurriak hartuko dituzte.
- Kartak ezin dira erakutsi joko edo puntuko jokaldia amaitu arte: bestela penalizazioa, hordago onartuta bezala, aurkariak nahi izan ezker.
- Ezin da esan ze kartak dituzten, soilik jokoan ari den puntuari dagokiona, besteen berri eman gabe, bestela epaileak neurriak hartuko ditu.

14.ARTIKULUA

- Lehenengoz kartak banatzean, kartaren bat agerian geratuko balitz, berriro banatzen da (Karta guztiak multzora) eta behin mus bat egonda kartaren bat ikusten bada, ez da ezer gertatzen.

3. KAPITULUA

MUS-A NOLA EMAN EDO KENDU

15.ARTIKULUA

- *Eskutik* den jokalaria erabakitzen du jokoa hasi edo mus eman. Azken hau balitz, lehen aurkariari legokioke mus ematea edo jokoa hastea, jarraian, esku dagoenaren bikoteak erabaki behar du eta, azkenik, aurkariak. Esku dagoenak ezingo du inola ere bere bikotearekin hitz egin edo haren izenean jokoa moztu.
- Ñabardura: esku dagoenak ezin du hitz egin bikotekidearekin eta bigarrena laugarrenekin bai.
- 1/3 eta 2/4, modu gurutzatuan onartu izango da mus eman edo hasi jokoan.

16.ARTIKULUA

- Jokalari guztiek mus emanaz gero, behar ez diren edo gogoko ez dituzten kartak mahai gainera bota behar dira, gutxienez bat. Kartak banatzea dagokionak esku dagoenetik hasita banatuko ditu kartak. Behin banatuko dizkio jokalaria bakoitzari, mahaira bota dituen karta kopurua hain zuzen.

17.ARTIKULUA

- Norbaitek jokoa hasteko eskatuko balu, esku dagoenari legokioke hizketan hastea. Lehenik handira, ondoren txikira, paretara, jokora eta azken hau inork ez balu puntura.

4. KAPITULUA

KEINUA ETA HORIEK EGITEKO MODUA

18.ARTIKULUA

- Arauturiko keinuak bakarrik onartuko dira txapelketan. Hauek dira:
 - Bi errege: Ahoko behe aldeko ezpainak hozkatuaz.
 - Bi bateko: Ahoko mingain punta ateraz.
 - Meriak (hiru karta zenbaki berdinarekin): Ahoko ezpainak albo batera mugituaz.
 - Dupleak(zenbaki berdina duten bi bikote): Ahoko ezpainak 2 aldetara mugituaz
 - Puntura 29: meriak bezala, pareak pasata.
 - Jokora 31 : Begi bat itxiaz.
 - Puntura 30 : begi bat itxita, jokoa ez dagoenean
 - Jokoa 32 eta 40 artean, bi bekainak altxatuaz.
- Bikote batek keinuren bat harrapatzen badu, atzemandako bikote horrek beti egia esan beharko du.
- Duda egonez gero, epaileak erabakiko du keinua onartzen duen edo ez.
- Keinua faltsuarekin harrapatzen baldin badute, ustela aurkariarentzako eta egoera errepikatuko balitz arau haustearen erantzule den bikotea kanporatuko litzateke.

5. KAPITULUA

ENBIDOAK

19.ARTIKULUA

- Jokalariren batek jokoa balu, apusturik egingo balu, bikote aurkariaren esku legoke apustua hartzea edo eta apustu handiagoarekin erantzutea. Apustua ez hartzeko kasuan, apustua egin duen bikoteak tanto bat jasoko luke . Apustua hartuz gero, partidaren amaieran karta hoberenak dituenak, jokatutako tantoak jasoko lituzke.(lehenik handira, ondoren txikira, paretara, jokora eta ez balego puntura jasoko lirateke hordagoaren arabera partida erabakiz) Azkenik hasierako apustua

baino handiagoren batekin erantzunez gero; lehen apustu egileak utziko balu eginiko lehen apustua adinako tantoak galduko lituzke hartuz gero partida amaierako kontaketan argituko litzateke azken apustuaren arabera. (Bikote bereko bi kideek apustu egingo balukete, lehendabizi hitz egin duenaren apustua hartuko litzateke kontutan).

20.ARTIKULUA

- Apustua egitean, bikote aurkariak hitz egin dezake apustua onartzen duen edo ez erabakitzeko, hala ere gogoratu ze karta dituen ezingo dute esan.

21.ARTIKULUA

- Parerik eta jokorik ez duen jokalaria ezin izango du bere bikotearen izenean apusturik egin.

22.ARTIKULUA

- Edozein jokoren inguruan, nor berak bere txanda duenean egin behar du apustua, ezin da bere bikotearen txandan agindua eman apustua egiteko, ematekotan araututako keinuaren bidez beharko du izan.

23.ARTIKULUA

- Bi bikoteek dupleak baldin ba dituzte eta pare handienak berdinak ba dira, pare txikienetan zenbaki handienak dituen bikoteak irabaziko du eta berdinak ba dituzte, eskutik dagoenak irabaziko du.

6. KAPITULUA

TANTOAK ZENBATZEAN

24.ARTIKULUA

- Apustua egin eta onartze ez den une bakoitzean jasoko dira utzitako tantoak. Berdinketa kasuetan beti, esku dagoen jokalaria irabaziko du. Buelta bakoitzaren amaieran, jokalaria guztiek beraien kartak mahai gainean erakutsi beharko dituzte kontaketarako. Kontaketa, lehenik handira, ondoren txikira, paretara eta jokora edo puntura egingo da ondorengo arauen arabera:
- Handira:
 - Pasoan joan ba da, karta handienak duenak tanto bat jasoko du.
 - Apusturik izan ba da, jokatu denaren arabera tantoak jasoko dira.
- Txikira:
 - Pasoan joan ba da, karta txikiena duenak tanto bat jasoko du.
 - Apusturik izan ba da, jokatu denaren arabera tantoak jasoko dira.

- Paretara:
 - Pasoan joan ba da, parerik onenak dituen bikotearen pareak kontatuko dira. Pare bakoitzarengatik tanto bat, bi meriengatik eta hiru dupleengatik.
 - Apusturik izan ba da, aurrekoaz gain apustuan jarritako tantoak ere jasoko dira.
- Jokora
 - Pareetan bezala, joko bakoitzarengatik bi tanto jasoko dira eta hiru 31 izateagatik. Bikote irabazleak bakarrik kontatutako ditu tantoak.
- Puntura:(jokorik ez dagoenean soilik)
 - Pasoan joan ba da, punturik onena duen bikoteak jasoko du tantoa.
 - Apustua egin eta utzi ba da, egin duenak jasoko du tantoa.
 - Apustua egin eta hartu ba da, apustuko tantoez gain puntuari dagokiona ere jasoko du punturik onena duenak.

25.ARTIKULUA

- Adibide gisako apustuak eta jaso beharreko tantoak:
 - Enbidoa jo eta aurkariak utzi ba du: tanto bat.
 - Enbidoa jo eta aurkariak hartu ba du: bi tanto.
 - 3 enbidatu eta aurkariak utzi ba du: tanto bat.
 - 3 enbidatu eta aurkariak hartu ba du: 3 tanto.
 - Enbidoa jo eta aurkariak 4 gehiago jotzen ba ditu eta nahi ez ba duzu: 2 tanto.
 - Enbidoa jo eta aurkariak 4 gehiago jotzen ba ditu eta nahi ba duzu: 6 tanto.
 - Enbidoa jo eta aurkariak 4 gehiago jotzen ba ditu eta 3 gehiago ondoren
 - aurkariak nahi ez ba du: 6 tanto.

26.ARTIKULUA

- Kartak mahaitik biltzean, ezin izango da tantorik jaso.(nahiz eta ondo irabaziak izan)

27.ARTIKULUA

- Epaille lanean diharduenak, jokalarien batek eskatuta soilik esku hartu ahal izango du. Arauaren kontra ez badira jolasten.
- Final aurrekoa eta finala ezezik. Eta Antolakuntza erabakitzen badu.

7. KAPITULUA

AKATSEI ETA HORIEN ZIGORREI BURUZ

28.ARTIKULUA

- Pareak izanda, ohar gabeen, ez dituela esan duen jokaldietan. Beste inork parerik ez ba du partida amaierako kontaketan ez ditu tantoak jasoko
- Bikote aurkariko norbaitek parerik ba du, apustu egin izan balu bezala jasoko du tantoa bikote aurkariak.

29.ARTIKULUA

- Jokorik izan gabe, ohar gabeen, ba duela esan duen jokalaririk balego:
 - Ez ba dago joko duen jokalaririk, bikotea aurkariak bi tanto jasoko ditu (puntu eta puntu utziaren izenean).
 - Aurkariak bakarrik baldin ba dute joko duen, apustu guztiak bertan behera geldituko dira eta aurkariak duten jokoarengatik jasoko dute dagokien tanto kopurua.
 - Deskuidatu den jokolariaren bikoteak joko duen eta aurkariak ere ba dute, aurkariak tanto bat jasoko dute (apustu egin izan balute bezala) eta jarraian jokoarengatik dagozkien tantoak kontatuko dituzte.

30.ARTIKULUA

- Jokoa izan da, ohar gabeen, ez duela esan duen jokalaririk balego:
 - Gainontzeko jokalariek ez ba dute jokorik, puntuari dagozkion apustuak bertan behera geratuko dira eta aurkariak puntu eta puntu utziari dagozkion tantoak jasoko dituzte.
 - Aurkariak joko duen, puntu/tanto utzia eta jokoaari dagokion tanto kopurua jasoko dituzte.

31.ARTIKULUA

- DENBORA, erabakiak hartzeko denbora gehiegi luzatzen bada, jokalarien artean neurri bat adosteko aukera dago edo bestela epaileari deitu (honek denbora neurri bat hartuko du, eta hau gainditurik neurriak hartuko ditu epaileak.
- Orokorrean eta gehienez, MINUTU BATEko tartea finkatuko du epaileak.

8. KAPITULUA

BESTE XEDAPEN BATZUK

32.ARTIKULUA

- Hizkuntzari dagokionez, Euskarak izango du dagokion lehentasun osoa, ulermen arazorik baldin ba dago, jokalarien artean adostu behar da nola jokatu, moldatzeko eta ulertzeko modurik ez ba dago, epaileari deitu, honek jarri beharrezko bitartekoak jarriko ditu (itzultzailea, adostasuna jokatzeko moduan hizkuntzari dagokionez...).
- Behin arazoa konponduta berriro ere gora beherak edukiz gero, edo hizkuntza erabilera abantaila gisa erabiltzeko tentaldirik balego neurriak hartuko ditu antolakuntzak..

33.ARTIKULUA

- Joko mahaitik altxatzea, behin jokoak hasita, epailearen baimenik gabe ezingo da joko mahaitik altxa partida amaitu arte.
- Penalizazioa, 34. artikulua martxan jarriko da.

34.ARTIKULUA

- Arau-hausteen aurrean, (Arautegiz kanpoko keinuak, gezurrak, hitz egitea arautegiz kanpo...) lehenengo aldiz gertatzean, epaileak neurri bezala, partida aurreko egoerara itzularaziko du tantoetan.
- Bigarrenengo aldiz arau-hausten bada, neurria zigor moduan aldekoari ustela ematearen tamainakoa izango da.
- Hirugarrenengo aldiz arau-hausten bada , txapelketako epaileak bildu eta kasua aztertuko dute, zigor moduan partida galdutzat ematetik hasi eta txapelketatik kanporatzerainoko zigorra jartzeraino erabaki ahalko dute.

35.ARTIKULUA

- Nazio mailako finalean: Sailkapenaren nondik norakoa eta kontaktak :
 - Lau erregetara jokatu da
 - 3 ustel hogeita hamar tantokoak egitera, 3 ustel egiten dituenak irabaziko du, beraz gehienez ere 5 ustel jokatu dira.
 - Lehendabiziko kanporaketa: *ligaxka* eran jokatu da, Euskal Herri osoko 128 bikote, lau bikotetako 32 taldetan banatuta eta guztiak guztien kontra jokatu dute.
 1. Partida gehienak irabazten dituenak irabaziko du.
 2. Berdinketarik, ba dago, irabazitako ustelak hartuko dira kontutan, gehien irabazi dituenak sailkatuaz.
 3. Berdinketak jarraitzen ba du, galdu dituen ustelak hartuko dira kontutan, gutxien galdu dituenak sailkatuaz.

4. Berdinketak jarraitzen ba du, tanto gehienak egin dituenak egingo du aurrera.
 5. Berdinketak jarraitzen ba du beraien arteko partida irabazi duenak egingo du aurrera.
- Talde bakoitzeko irabazlea sailkatuko da. Bigarren geratu den bikoteak 36. Artikuluan zehazturiko txapelketa *kontsolantean* parte hartzeko aukera izango du.
 - Sailkatuen hurrengo kanporaketak azkarrak izango dira, beraz partida bakarra jokatu dute. 32goak, 16goak, 8goak, 4goak, final aurrekoa eta finala jokatu arte..
 - 32eko kanporaketakoa irabazleak 16go fase ofizialera, eta galtzaileak 16go kontsolante fasera.

36.ARTIKULUA

- Nazio mailako finalean: Txapelketa *kontsolantea* antolatuko da azpiegiturak hala ahalmentzen duen kasuetan. Txapelketa honetan jokatuko lukete lehendabiziko kanporaketan, *ligaxka* eran jokatzeko denean bigarren bikote sailkatuak direnen artean.
- Nazio txapelketatik at bada ere, aukera izango dute bertan parte hartzeko eta lehiatzeko kanporaketa azkar moduan. Hau da partida bakarrera, 32goak, 16goak, 8goak, 4goak, final aurrekoa eta *kontsolanteen* finala jokatu arte..

37.ARTIKULUA

- Araudi honen inguruko eztabaida edo bestelako ezin ulertuak argitzea eta bideratzea epaile lanean diharduenari dagokio. Bere azken erabakia mugiezina izango delarik. Arazorik eduki ez gero, jokalarien artean adostuko da ahal ba da, eta ulertzeko modurik ez ba dago epaileak erabakiko du horrela nahi izan ez gero eta erabakia errespetatu beharko da.

Euskal Herrian, 2023ko abenduaren 4an.



EUSKAL HERRIKO ehmus.eu
MUS FEDERAZIOA

Harremanetarako: idazkaritza@ehmus.eu

Webgunea: www.ehmus.eu